

## BIZKAIKO KONPOSTEGIA

### KONPOSTAJE-INSTALAZIOAREN ARAUDIA

**Bizkaiko Konpostegia** Konpostaje-instalazioaren eta haren erabiltzaile taldeentzako funtzionamendu araudia.

#### **0. Sarrera:**

**Bizkaiko Konpostegia** landare eta animalia jatorriko hondakin organikoak konpostatzeko planta da. Hondakinak onartzeko eta konposta jasotzeko izapideak laburtu eta errazteko egin da Araudi hau.

**Bizkaiko Konpostegia** ustiatzeko ardura duen erakundea GARBIKER, M.P., A.B., S.A. da, Bizkaiko Foru Aldundiko Ingurumena eta Nekazaritza Sustatzeko Sailaren mendeko enpresa publikoa, eta haren ardurapean eta zuzendaritzapean gauzatzen dira instalazioa ustiatzeko lanak.

Halaber, **Bizkaiko Konpostegian** konposta egiten da, eta interesa duen edozein pertsonak eta/edo erakundek eskuratu dezake.

#### **1. Hondakin onargarriak**

Soltean edo konposta egiteko poltsetan onartuko dira:

- **Lorezaintzako hondakinak:** inausketa hondakinak, zuhaixkak, hostoak, koniferoak, landareak (sustrairik gabe), soropila.

\*Enborren **gehieneko diametro onargarria 40 cm da, eta gehieneko luzera, berriz, 1,50 m.**

- **Ekoihle handien bio-hondakina:**

- Ekoihle handietatik datozen fruta eta barazkiak (hornidurako merkatu zentralak, hornidura-merkatuak eta merkataritza-gune handiak).

- **Etxeko bio-hondakina:**

- Landare-jatorriko hondakin kozinatuak edo gordinak: fruta-, barazki-, eltzekari-, pasta- eta arroz-hondarrak, haziak.
- Animalia-jatorriko hondakin kozinatuak edo gordinak: okela-hondarrak, hestebeteak, arraina, itsaskia, arrautza eta haren oskolak, hezurak eta gazta.

- Kafe-hondarrak eta iragazkiak, infusio-poltsatxoak, ogi-hondarrak, galletak eta opilak, fruitu lehorrak eta haien azalak, fruta-hezurak eta kortxo naturalezko tapoiak (**ez plastikoak**).
- Burruntzietarako edo bestelako elikagaietarako zotzak, izozki makilak eta antzekoak.
- Sukaldeko papera, ezpain-zapiak eta paperezko mahai-zapiak, kartoizko arrautza-ontziak, uhin-kartoia (horiek guztiak, **zikinak edo materia organikoz bustiak**).
- Txikoria, algak, alpistea, kafea, karameluak eta gozokiak, zerealak, irina, marmelada.
- Poltsa, ontzi eta tresna konpostagarriak.

Ez da inolaz ere onartuko **frakzio organikotik** datozen hondakinak biltegitratzea, **baldin eta %5eko edo hortik gorako ezegokien portzentajea badute (pisuan edo bolumenean)**. Utzi beharreko kargak ehuneko hori gainditzen duela ikusiz gero, **berehala debekatuko da hura deskargatzea**.

Ekoizle berak behin eta berriz gordailu **DESEGOKIAK** egiten baditu, egoera zuzentzeko abisua bidaliko zaio, eta, egoerak bere horretan jarraitzen badu, Garbikerrek gordailua debekatzeko eskubidea izango du, hondakinaren kalitatea zuzendu arte.

Alde horretatik, errefusatzeko ekoizleari egotzi dakioke, hiri hondakin solidoa zabortegian uzteari dagokion prezio publikoa aplikatuz.

## 2. Hondakin ez onargarriak

Ez dira onartuko:

- Konposta egiteko ez diren lorezaintzako hondakinak: motzondoak, lurra, zohikatza, berotegiko substratuak, sustraiak, palmazeoak, panpako luma-ontzia eta banbua.
- **40 cm-tik gorako diametroa edo 1,50 m-tik gorako luzera** duten zuhaitz-adarrak eta enborrak.
- Olioak edo beste edozein likido, jatorria edozein dela ere.
- Errautsak, xurgatutako edo ekortutako hondakinak, lurra, zigarrokinak eta hautsontzien hondakinak.
- Konpostagarri ez den edozein material (beira, plastikoa, metala...).
- Giza eta animalia-gorozkiak.
- Katuen harea.
- Lurra eta loreontzien zohikatza.
- Pixoihalak, konpresak eta tanpoiak, paper-zapi bustiak.

- Eranskailuak eta elementu itsaskorrek, kolore distiratsuko txartelak edo paperak edo koloretako tintekin inprimatuak.
- Tiritak, esparatrapuak, bendak, kotoia, belarrietarako makilatxoak.
- Sukaldeko papera, ezpain-zapiak eta paperezko mahai-zapiak, kartoizko arrautza-ontziak eta kartoi izurtua (**horiek guztiak, garbiak, ezein substantziaren arrastorik gabe**).
- Poltsa eta ontzi ez-konpostagarriak.
- Objektu gogorrek, harriak, kristalezko, metalezko edo plastikozko zatiak.
- Orban-kentzekoak eta lorategiko edo etxeko beste produktu kimiko batzuk.

### 3. Bizkaiko Konpostegiaren erabiltzaile taldeak

Bizkaiko Konpostegia erabiltzaile talde hauentzat da:

- Udalak eta Mankomunitateak.
- Lorezaintzako eta nekazaritzako zein basogintzako lanak egiten dituzten enpresak, baita hondakinak biltzen dituztenak ere.
- Merkataritza-guneak eta hornidura-merkatuak.
- Nekazaritzako eta barazkigintzako enpresak.
- Partikularrak.
- Bizkaiko Foru Aldundia.

### 4. Harrera ordutegia

Astelehenetik ostiralera: 07:00etatik 19:00etara, etenik gabe.

Larunbat eta jaiegunetan: itxita.

Igandeetan: 13:00etatik 19:45era (GARBIKERek baimenduak bakarrik).

### 5. Konposta egiteko moduko hondakinak onartzeko prozedura

Hondakin bat onartzeko, mezu elektronikoko bat bidali behar da [registro.garbiker@bizkaia.eus](mailto:registro.garbiker@bizkaia.eus) helbidera, eta, bertan, datu hauek eskatuko dira:

- Erakunde eskatzaileak bezero gisa duen erregistroa.
- Hondakinak tratatzeko kontratuak sortzea.

- Bizkaiko Konpostegian ibilgailuak onartzeko prozesua.

Tramite horiek bukatuta, erakunde eta/edo pertsona eskatzaileari oniritzia jakinaraziko zaio, eta egun horretatik aurrera gordailua egin ahal izango da, Araudi honetan deskribatutako baldintzetan.

Entitate eta/edo pertsona eskatzailea ezin izango da inola ere esparrura sartu Garbikerren aldez aurreko baimenik gabe, eta aldez aurretik baimendu ez den ibilgailurik ezin izango da instalazioetan sartu.

*In situ* egiaztapena:

Garbikerreko langileek egiaztatuko dute hondakinak **Bizkaiko Konpostegira** errefus materialik gabe edo gutxieneko proportzioan iristen direla, eta ez dituzte onartuko % 5etik gorako (pisuan edo bolumenean) desegokiak dituzten bidaiak.

## 6. Materialaren irteerarako prozedura

Konposta erosi nahi duten pertsonak eta/edo erakundeek Garbikerren webguneko inprimakiaren bidez egin beharko dute eskaera, helbide honetan:

<https://garbiker.bizkaia.eus/eu/konposta-erosi>

Agiri horretan, nahitaezko informazio hau jasoko da:

- Bezeroaren datu pertsonalak.
- Erosi beharreko produktua eta kantitatea.
- Instalaziora joango den ibilgailuaren matrikula.
- Fakturaziorako kontuaren titulartasunaren egiaztapena.

Tramite horiek bukatuta, bezeroa **Bizkaiko Konpostegiko** erregistroan inskribatuko da, eta, aldez aurretik abisatuta, **Bizkaiko Konpostegiko** instalaziora joan daiteke materiala jasotzera. Konposta soltean merkaturatzen da, eta garraioa pertsona eta/edo erakunde eroslearen ardura izango da.

Garbikerrek **EZ du konposta garraiatzen; zuzenean pala kargatzailearen bidez ontziratutako gabeko karga kamioiratzea baino ez du egiten.** Horrenbestez, jasotzera joaten diren enpresek, erakundeek eta erabiltzaileek beren baliabide osagarriekin joan beharko dute (ibilgailua itxita edo olanaz estalia, zakuak, etab.).

Bizkaiko Foru Aldundiak konposta behar izanez gero, Garbiker Bizkaiko Foru Aldundiaren bitarteko propioa denez, doan emango da.

## 7. Bizkaiko Konpostegiko langileen ardura

**Bizkaiko Konpostegiko** langileek behar adinako agintea dute beren tipologiagatik Araudi honetan sartzen ez diren hondakinak onartzeko edo ez onartzeko.

Halaber, langileek betebeharrak hauek dituzte:

- **Bizkaiko Konpostegiko** erregistroan inskribatu gabeko erakunde ekoizleari/bezeroari ez uztea hondakinak biltzen.
- Onartzen ez diren materialak uzteko baimenik ez ematea.
- Instalazio osoa txukun eta egoera onean edukitzea.

## 8. Entitate ekoizleen eta bezero diren entitateen erantzukizuna

- **Bizkaiko Konpostegian** konposta utzi eta/edo jasotzeko eskaerak betetzea, aurrez deskribatu bezala.
- **Bizkaiko Konpostegiko** langileen jarraibideei jarraitzea.
- Horretarako dagoen eremuan deskargatzea, Garbikerreko langileek adierazitakoaren arabera.
- Egiaztatzea karga errefusatzeko materialik gabe dagoela.

## 9. Tarifak:

**Bizkaiko Konpostegiaren** tarifak Garbikerren webgunean kontsultatu daitezke, Ohiko Galderak/Garbiker Tarifak atalaren barruan.

<https://garbiker.bizkaia.eus/eu/ohiko-galderak>